



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko maiatzaren 18a

64. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektua. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, ezgaitasuna duten pertsonen eskubideak arautzeko foru lege proiektuari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (4. or.).
- Galdera, “Nafarroako Foru araudia Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen aldeko Nazioarteko Konbentzioari egokitzeari buruzko txostena”ri buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Bigarren Hezkuntzako ikasleak Uhartetik Atarrabiara garraiatzeko zerbitzua murrizteari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza-zikloaren zerbitzua sortzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (5. or.).
- Galdera, tren bidezko pertsona- eta salgai-garraioa bultzatzeko estrategiei eta neurriei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (6. or.).
- Galdera, bidesariek Nafarroako enpresetan izan lezaketen eraginari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Auzitegi Gorenak Skolae Programari buruzko kasazio-errekurtoa onartu ez izanari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, osasun arloko itxarote-zerrendei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (8. or.).
- Galdera, alarma egoera bukatutakoan hartu beharreko neurrien legezketasunari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, udako hilabeteetarako kultur programazioari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, euskara merezimendu gisa baloratzea edo baldintza gisa eskatzea baliogabetzen duten Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (10. or.).
- Galdera, arrazakeria instituzionalari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (10. or.).

- Galdera, Lizarrako Osasun Barrutiko etxeko ospitalizazio zerbitzua ixteari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, udan zezen-ikuskitunak egiteari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuak “Gizarte Ongizatearen ereduak Euskal Herrian” proiektuaren baitan Eusko Ikaskuntzak antolatutako mintegietan parte hartzeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (12. or.).
- Galdera, “Rider-en legea” onetsi ostean banatzaileen kontratazioak kontrolatzeari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako trenbideko garraioa berrorientatzeko sindikatuek egindako eskakizunei buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (13. or.).
- Galdera, 0-3 zikloko eskolaratzearen egoerari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroan enpresak ezartzeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, hezkuntza-ituna betetzeari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enpresengana hurbiltzeko darabilen strategiari buruzkoa. Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea (15. or.).
- Galdera, Punto Futuro Arrisku Kapitaleko Funtseko partaidetzari eta likidazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Auzitegi Nagusiko Sala Zibil eta Penaleko magistratu-postu bat betetzeko hiru jurista hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (18. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektua.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2021eko maiatzaren 24ko 12:00ak arte** luzatzea. Foru Lege proiektua 2021eko urtarrilaren 15eko 3.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/LEY-00021).

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, ezgaitasuna duten pertsonen eskubideak arautzeko foru lege proiektuari buruzkoa.***MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, ezgaitasuna duten pertsonen eskubideak arautzeko foru lege proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak Eskubide Sozialetako Batzordean ahoz erantzun dezan:

Parlamentuak 2019ko irailean premiatu zintuen desgaitasuna duten pertsonen eskubideak arautzeko foru lege proiektu bat egitera. Zertan da foru lege proiektu hori?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

---

**Galdera, “Nafarroako Foru araudia Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen aldeko Nazioarteko Konbentzioari egokitzeari buruzko txostena”ri buruzkoa.***NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, “Nafarroako Foru araudia Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubide-

en aldeko Nazioarteko Konbentzioari egokitzeari buruzko txostena”ri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du “Nafarroako Foru araudia Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen aldeko Nazioarteko Konbentzioari egokitzeari buruzko txostena” dela eta? Zer aurreikuspen darabil txostenean jasotzen dena betetzeko?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

---

## **Galdera, Bigarren Hezkuntzako ikasleak Uhartetik Atarrabiara garraiatzeko zerbitzua murrizteari buruzkoa.**

*MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako galdera, Bigarren Hezkuntzako ikasleak Uhartetik Atarrabiara garraiatzeko zerbitzua murrizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari María Roncesvalles Solana Aranak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, albait lasterren izapidetu dadin eta Nafarroako Gobernuako Hezkuntzako kontseilariak heldu den asteartean (maiatzaren 18an, 15:15ean) Hezkuntza Batzordearen bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentua zer txostenetan oinarritzen da Atarrabiako herrian ikasten duten Uharteko Bigarren Hezkuntzako ikasleen garraio zerbitzua murrizteko?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

---

## **Galdera, 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza-zikloaren zerbitzua sortzeari buruzkoa.**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza-zikloaren zerbitzua sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak Hezkuntza Batzordean erantzun dezan:

Hezkuntza Batzordean eginiko azken agerraldian, Carlos Gimeno Gurpegui kontseilariak 0tik 3 urtera bitarteko zikloan aurreikusitako zenbait pauso eman direla azaldu zuen, datozen hiru urteotan 1.173 plaza sortzeari eta tarifak jaisteari dagokienez. Halaber, arlo horretan hartutako akordioekiko konpromisoa berretsi zuen (0-3 Zerbitzuaren sorrera, departamentuaren egiturari buruzko dekretuaren aldaketa, eta abar).

Kontua da hilabeteak daramatzazuela esaten zerbitzua "berehala" sortuko dela, baina oraindik ez da halakorik sortu, eta nahiz eta lantalde bat

sortu den zenbait arlotan aurrerabidea egiteko, oraindik ere urrats asko geratzen dira emateke, eta zehaztugabetasun betean gaude, non eta Hezkuntza Departamentuak ez duen zerbitzu bereki bat sortzen, egin beharrekoak egiteko tresnak dauzkana.

Hori dela-eta, honako galdera zehatz hau egingen dizugu:

Hezkuntza Departamentuan noiz sortuko da Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko zazpi haur eskolak bere gain hartzeko prozesua abiaraziko duen 0-3 zikloko zerbitzua, zeina 2021-2022 ikasturterako aurreikusten baitzen, eta haur eskolen kudeaketa ahal den partekatu eta koordinatuen ahalbidetuko duen erakunderen bat toki entitatekin batera sortzeari eta ratioak jaisteari ekinen diona?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, tren bidezko pertsona- eta salgai-garraioa bultzatzeko estrategiei eta neurriei buruzkoa.**

### *MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, tren bidezko pertsona- eta salgai-garraioa bultzatzeko estrategiei eta neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egingen du, Parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Azkenaldian luze eta zabal eztabaidatu da trantsizio ekologikoari buruz eta Espainiako ekonomia 2050erako deskarbonizatzeko helburuari buruz, Europar Batasunaren aitzinean eta Parisko Akordioan hartutako konpromisoak betetze aldera.

Trantsizio ekologikoa gauzatuko bada, ezinbestekoa da mugikortasun sistema aldatzea. Pertsonen garraio indibidualista eta indibidualizatuen ereduaren aitzinean, non ibilgailu partikularra lehenesten baita, horrek berekin dakarren erregai-kontsumoarekin eta kutsadurarekin, funtsezkoa da pertsonen garraio kolektiboaren aldeko apustua egitea. Salgai-garraioan ere, gutxiago kutsatzen duten ereduaren aldeko apustua egin behar da; esate baterako, tren.

Salgai- eta bidaiari-garraiorako ereduak ez da hartu behar joan-etorria bere horretan egiteko bitarteko huts bezala, ezpada lurraldeak sozial eta ekonomikoki egituratzeko tresna bezala ere.

Funtsezkoa da Nafarroako industriak eta Europako merkatuak modu egokian konektatzea, gure produktuak gure bezero potentzialei esportatzeko lagungarri gisa. Halaber, nahitaezkoa da gure

erkidegoko eskualdeak tren-zerbitzu sozial eta jasagarri baten bidez konektatzea, nafar guztien aukera-berdintasuna aldezteko eta landa-eremuaren despopulazioaren fenomeno arriskutsuari aurre egiteko.

Finean, premia-premiazkoa da pertsona nahiz salgaien garraiorako tren-eredu sozial eta jasangarriaren aldeko apustua egitea gaur egun. Abiadura handiko eredu megalomanoak gorabehera, Nafarroak lurraldea egituratzeko trena behar du gaur egun, nafarrak erkidego osoko herri eta hirie-

tara hurbilduko dituen eta gure industrien produktuak eta salgaiak gure mugez harago eramanen dituen.

Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuak zer estrategia eta neurri ezarri nahi ditu tren bidezko pertsona- eta salgai-garraioa bultzatzeko?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

---

## **Galdera, bidesariek Nafarroako enpresetan izan lezaketan eraginari buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, bidesariek Nafarroako enpresetan izan lezaketan eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen dabil bidesariek Nafarroako enpresetan izan lezaketan eraginari dagokionez?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## **Galdera, Auzitegi Gorenak Skolae Programari buruzko kasazio-errekurtsoa onartu ez izanari buruzkoa.**

*PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, Auzitegi Gorenak Skolae Programari buruzko kasazio-errekurtsoa onartu ez izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pedro González Felipe jaunak honako galdera hau egiten dio Hezkuntzako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak zer iritzi dio Auzitegi Gorenak 2017-2021 Hezkidetza Planaren oinarrian dagoen Skolae Programari buruzko kasazio-errekurtsoa onartu ez izanari eta, halatan, Skolae Programa indargabetzeari?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

## **Galdera, osasun arloko itxarote-zerrendei buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, osasun arloko itxarote-zerrendei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu Osasun arloko itxarote-zerrenden gaur egungo egoera dela-eta?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén



## **Galdera, alarma egoera bukatutakoan hartu beharreko neurrien legezkotasunari buruzkoa.**

*CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, alarma egoera bukatutakoan hartu beharreko neurrien legezkotasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer dela-eta ez zion Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiari alde aurretik galdetu alarma egoera bukatutakoan hartu beharreko neurrien legezkotasunaz?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

---

## **Galdera, udako hilabeteetarako kultur programazioari buruzkoa.**

*CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera, udako hilabeteetarako kultur programazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura eta Kiroleko kontseilariak 2021eko maiatzaren 20ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kultura Departamentuak zer programazio aurreikusten du Nafarroa osoan udako hilabeteetarako?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

## **Galdera, euskara merezimendu gisa baloratzea edo baldintza gisa eskatzea balio gabetzen duten Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenei buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, euskara merezimendu gisa baloratzea edo baldintza gisa eskatzea balio gabetzen duten Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Atarrabiako eta Uharteko plantilla organikoetako lanpostu ugarian euskara merezimendu gisa baloratzea edo baldintza gisa eskatzea balio gabetzen duten Nafarroako Administrazio Auzitegiaren orainsuko ebazpenez?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **Galdera, arrazakeria instituzionalari buruzkoa.**

*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, arrazakeria instituzionalari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilari Eduardo Santos Itoiz jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak zehapena jarri dio Ribaforadako Udalari, "leialtasunik gabe" eta modu "ez-zilegian" jokatu zuelakoan Modou Khadim Sow-en kanporaketan amarruz laguntzeagatik.

Zehapen horri dagokionez, honako hau jakin nahi dugu:

- Zure departamentuak zer tresna abiaraziko du arrazakeria instituzionala amaiarazteko eta gertatutakoa errepikatzea ekiditeko?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

## **Galdera, Lizarrako Osasun Barrutiko etxeko ospitalizazio zerbitzua ixteari buruzkoa.**

### *DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Lizarrako Osasun Barrutiko etxeko ospitalizazio zerbitzua ixteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau

aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lizarrako Osasun Barrutiko etxeko ospitalizazio zerbitzuan eguneroko funtzionamendua bermatzeko arazoak metatu dira azken hilabeteotan. Batez ere, zenbait estamentutako profesionalak falta direlako. Zoritxarrez, beharizan horiek konpondu ez ezik, langileen artean dabilen informazioa da litekeena dela etxeko ospitalizazio zerbitzua ixtea.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

• Nola liteke Osasun Departamentuak etxeko ospitalizazioaren onurak defendatzea eta Lizarrako Osasun Barrutiko etxeko ospitalizazio zerbitzua ixtea planteatzea?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

---

## **Galdera, udan zezen-ikuskizunak egiteari buruzkoa.**

### *YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkeztutako galdera, udan zezen-ikuskizunak egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak toki entitateei baimenik emanen die uda honetan zezen-ikuskizunak antolatzeke? Baita ikuskizun horiek herriko festak izan behar ziren astean egiten badira ere?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

## **Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuak “Gizarte Ongizatearen ereduak Euskal Herrian” proiektuaren baitan Eusko Ikaskuntzak antolatutako mintegietan parte hartzeari buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuak “Gizarte Ongizatearen ereduak Euskal Herrian” proiektuaren baitan Eusko Ikaskuntzak antolatutako mintegietan parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak Eskubide Sozialetako Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zure departamentua zer dela-eta joan da edo joanen da “Gizarte Ongizatearen ereduak Euskal Herrian” proiektuaren baitan Eusko Ikaskuntzak antolatutako mintegietara?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **Galdera, “Rider-en legea” onetsi ostean banatzaileen kontratazioak kontrolatzeari buruzkoa.**

*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, “Rider-en legea” onetsi ostean banatzaileen kontratazioak kontrolatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak maiatzaren 20ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

“Ryder-en legea” onetsi ostean, nolako kontrolak eginen ditu Nafarroako Gobernuak banatzaileak enpresek kontrataturik daudela ziurtatze aldera?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

## **Galdera, Nafarroako trenbideko garraioa berrorientatzeko sindikatuek egindako eskakizunei buruzkoa.**

*AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako trenbideko garraioa berrorientatzeko sindikatuek egindako eskakizunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak maiatzaren 20ko Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Sindikatuen gehiengoak Nafarroako trenbideko garraioa berrorientatzeko eskatu izanari buruz, zer uste du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 14an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, 0-3 zikloko eskolaratzearen egoerari buruzkoa.**

*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 0-3 zikloko eskolaratzearen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak 2021eko maiatzaren 20ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

0-3 urte bitarteko ziklorako matrikula mar-txoaren 1etik 15era bitartean egin da Iruñean.

Heldu den ikasturteari begira, Iruñeko Udalak kendu egin zituen haur-eskoletako eskolatzeko eta matrikula-kuotak. Eskola horietan, jantoki kuotari dagokionez, familiek beren egoeraren arabera dagokien kopurua ordainduko dute.

Izan ere, 0-3 zikloko ikasleek baldintza desberdinak dituzte: batzuk Iruñeko Udalaren mendeko ikastetxeetan eskolatuko dira, doako irakaskuntzan; beste batzuk Nafarroako Gobernuaren mendeko eskoletan, irakaskuntzaren kostua ordainduta, eta beste batzuk plazarik gabe geratuko dira eskaintza publiko nahikorik ez dagoelako.

Maiatzaren 10ean argitaratu zen onartuen zerrenda, eta hil honetako 24tik 28ra bitartean eman beharko dute izena.

Aurreikusitakoa gertatu da: haur-eskola batzuk beteta daude eta itxaron-zerrenda luzeak dituzte; beste batzuk, berriz, bete ezinik daude eta plaza hutsak dituzte, hain zuzen ere doakoak ez direnak.

Beste efektu oso negatibo bat gertatu da: haurrak plazarik gabe geratu dira beren bizilekutik hurbil dauden eskoletan, eta beste leku batzuetako haurrek, puntuazio handiagoa dutenek, okupatu dituzte plaza horiek.

Gainera, izena emateko orria aldatu ez denez (bi aukera baino ezin dira adierazi), dozenaka familia abuztura arte geratuko dira ziurgabetasunean, jakinarazi zaienaren arabera.

0-3 zikloko eskolaratzea dela eta, zer neurri aurreikusten ditu Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak familien ziurgabetasun- eta desordena-egoera hori konpontzeko eta nola bermatuko die 0-3 zikloan plaza publiko bat ikasle guztiei beren bizilekutik gertuen dagoen lekuan eta familiek aukeratutako hizkuntza-ereduan?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 16an.

Foru parlamentaria: María Luisa de Simón Caballero

---

## **Galdera, Nafarroan enpresak ezartzeari buruzkoa.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroan enpresak ezartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Nola azaltzen du lehendakariak Nafarroara enpresa gutxiago etortzea kanpora joaten direnak baino?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

## **Galdera, hezkuntza-ituna betetzeari buruzkoa.**

*MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, hezkuntza-ituna betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari María Roncesvalles Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak maiatzaren 20ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

REACT funtsak jaso ondoren edo Celaá ministroak autonomia-erkidegoentzat 2.000 milioi euro bideratuko dituela iragarri ondoren, Hezkuntza Departamentuak uste du prest egonen dela aurtengo hezkuntza-itunetan jasota dauden eta bete gabe dauden konpromisoak betetzeko?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

## **Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enpresengana hurbiltzeko darabilen strategiari buruzkoa.**

*ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetu dadin Nuria Medina Santos andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enpresengana hurbiltzeko darabilen strategiari

buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 31ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00172).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Galdera, Punto Futuro Arrisku Kapitaleko Funtseko partaidetzari eta likidazioari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Punto Futuro Arrisku Kapitaleko Funtseko partaidetzari eta likidazioari buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 29ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak galdera idatzia aurkeztu du (10-21/PES-00045), Punto Futuro arrisku-kapitaleko funtsari buruzkoa. Honako hau da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo jaunak horri buruz informatu beharrekoa:

Nafarroako Gobernuak parte hartu al zuen 2004an, orduko Navarra de Financiación y Control, SA (NAFINCO) enpresa publikoaren bidez, Punto Futuro FCR sozietatearen eratzean? Zer kapital-ekarpen egin zuen eratze horretan?

Arrisku-kapitaleko Punto Futuro funtsa Clave Mayor-ek 2005eko urtarrilaren 19ko eskritura publiko bidez eratu zuen, eta haren ondare-eraketari 2005ean zehar ekin zitzaion. Gero, Navarra de Financiación y Control, SA sozietate publikoak 1.000 euroko balio nominaleko 3.000 partaidetza harpidetu zituen. Alegia, haren ekarpena 3 milioi eurokoa izan zen.

Harrezkero egin al zion Nafarroako Gobernuak edo haren sozietate publikoetakoren batek beste kapital ekarpenik aipatu arrisku-kapitaleko funtsari? Noiz eta zenbatekoa?

2010eko urtarrilaren 29an, Navarra de Financiación y Control, SAK beste ekarpen bat egin zuen, 200.070 eurokoa, "kapital-ekarpen" kontzeptuan, eta 190 partaidetza harpidetu zituen, 1.053 eurokoa bakoitza.

Funtsa likidaturik al dago? Hala bada, zergatik agertzen da Sodena enpresa publikoaren webgunean Sodenaren partaidetza duten enpresetako bat dela?

Funtsa 2017ko azaroaren 23an likidatu zen. Sodenako erregistroetatik ez zitzaion berehalako baja eman, informazioaren konparagarritasunari eustearren; eta gero, oker baten ondorioz, web orriko erreferentzia mantendu egin zen. Gaur den egunean, jada zuzenduta dago okerra.

Punto Futuro FCR existitu den urteetan, irabazien nolako banaketa jaso dute funtsaren kapitalean parte hartzen zuten enpresa publikoek?

2015eko maiatzean, Sociedad de Desarrollo de Navarra, SAK milioi bat laurehun eta hamalau mila laurehun eta hogeita hamahiru euro eta laurogeita hamasei zentimoko kantitatea (1.414.433,96 €) jaso zuen Punto Futuro FCRrengandik.

Likidazioaren unean, funtsari eginiko partaidetzatik zenbat diru berreskuratu zuten enpresa publikoek?

Likidazio-unean, 2018ko urtarrilean, Sociedad de Desarrollo de Navarra, SAK hiru mila laurehun eta laurogeita hamalau euro eta hirurogeita hamalau zentimo jaso zituen (3.494,74).

Funtsa existitu zen urteetan, zer inbertsiok egin zuten huts, eta zenbateko galerak izan ziren horietako bakoitzean?

Eskatutako informazioa ez dago une honetan eskuragarri. Punto Futuro-ren kanpo auditoretzak bai, eskuragarri daude.

Punto Futuro FCR eratu zenetik eta iraun zuen urteetan, nortzuk izan ziren bazkide ziren pertsona fisiko edo juridikoak, eta zenbateko kapitala jarri zuten eta berreskuratu zuten funtsaren likidazioarekin?

Datu-babeserako legeak eragotzi egiten du persona fisikoen datu pertsonalen berri ematea. Alabaina, zilegi da jakinaraztea ezen, urteko kontuetako ondareari buruzko oharrean ikus daitekeen bezala, ondarearen % 20 gainditzen zuten bi partaide bakarrak zirela Navarra de Financiación y Control, SA (gero Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.L.n bategina) eta Grupo Corporativo de Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra, SA (gero Hiscan Patrimonio, Cajasol Inversiones de Capital eta Caixa Capital Fondos).

Zenbat ditu kobratu zuen funtsa kudeatzen zuten sozietateak?



Auditoretzetako datuen arabera, emaitza-kontuek 2.035.193 euroko komisio-sortzapena jasotzen dute.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

---

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Nafarroako Auzitegi Nagusiko Sala Zibil eta Penaleko magistratu-postu bat betetzeko hiru jurista hautatzea.**

*HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, hona erabakia:

**1.** Nafarroako Auzitegi Nagusiko Sala Zibil eta Penaleko magistratu-postu bat betetzeko hiru

jurista aukeratzeko hautagaitzak aurkezteko epea **2021eko maiatzaren 17ko 17:30a arte** luzatzea (10-21/ELC-00001).

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---



